

Euskarazko haur eta gazte literaturaren kritika gaur egun

(The critique of the children's and young people's
literature in Basque)

Etxaniz, Xabier

Euskal Herriko Unib. Magisteritza Eskola. Juan Ibáñez de Sto.
Domingo, 1. 01006 Vitoria-Gasteiz. tlpetex@vg.ehu.es

BIBLID [1137-4454 (2002), 19; 69-76]

Literatura kritikaren helburua irakasteaz gain, dagoen onena zabaltzea da. Horretarako kritikak dagoen produkzioaren artean bideak jarri behar ditu testu onak ezagutarazteko. Haur eta gazte literaturan kritika egite-rakoan testu laburrak edo erreseinez aparte, kritika deskriptiboa, subjektiboa eta analitikoa aurki ditzakegu. Lan honetan horiek guztiak aztertzeaz gain, egun euskaraz ematen den haur eta gazte literatura kritikaren deskriba-pena ere egiten dugu.

Giltza-Hitzak: Haur eta Gazte literatura kritika. Kritika mota ezberdinak. Euskarazko kritika.

Aparte de la enseñanza, la difusión de las mejores obras constituye el objetivo de la crítica literaria. Para ello la crítica ha de poner los medios para dar a conocer los buenos textos de entre la producción existente. En la crítica de la literatura infantil o juvenil, aparte de textos cortos y reseñas, nos podemos encontrar con crítica descriptiva, subjetiva y analítica. En el presente trabajo, además de analizar todas ellas, realizamos una descripción de la crítica que se hace hoy en día en euskara de la literatura infantil o juvenil.

Palabras Clave: Crítica de la literatura infantil y juvenil. Tipos diferentes de crítica. Crítica en lengua vasca.

A part l'enseignement, la diffusion des meilleures oeuvres constitue le but de la critique littéraire. Pour cela, la critique doit mettre tout en oeuvre pour faire connaître les bons textes parmi la production existante. Dans la critique de la littérature infantile ou juvénile, hormis dans les textes courts et les résumés, nous pouvons trouver une critique descriptive, subjective et analytique. Dans ce travail, nous réalisons une description de la critique de la littérature infantile ou juvénile qui se fait aujourd'hui en euskara, en plus de l'analyse de toutes ces oeuvres.

Mots Clés: Critique de la littérature infantile et juvénile. Différents types de critique. Critique en langue basque.

Haur eta gazte literaturaren kritika

Haur eta gazte literaturan ematen den kritikari buruz hitz egiterakoan, kon-tuan izan beharko dugu fikziozko testu horien ezaugarri bereziak alde batetik, eta bestetik kritikagintzaren helburuak eta nondik norakoak.

Izan ere, Matthew Arnoldek dioenez (Pickrtingek aipatua, 1982: 13) kriti-karen helburua da “to learn and propagate the best that is known and thought in the world”, hots, irakatsi eta zabaldu onena. Edo, gure inguruko literature-tan gertatzen den bezala, dagoen produkzio ugari eta zabalaren artean bideak jarri testuak hobetzeko eta dauden onak ezagutarazteko. Beraz, bi helburu na-gusi horiek izan behar ditu literatur kritikak, gure ustez.

Haur eta gazte literaturaren kasuan are beharrezkoagoa da kritikaren beharra, fikziozko testu hauek oso berriak baitira literaturaren historian eta gure artean. Alde horretatik, formazioaren behar handia dago irakasle, bi-bliotekari, egile, guraso, argitaletxeetako arduradun eta abarren aldetik. Dagoen produkzio handiaren artean eta korronte, joera, idazkera, gaien tra-tamendu eta antzeko kontuen ugaritasunaren erdian orientatzeko tresnak behar-beharrezkoak dira. Literatur testu hauetan ez dugu tradizio handirik, berrikuntzak, ugariak izateaz gain, oso azkar ematen ari dira eta argitale-txeetatik edo gizartetik datorren eskaerari erantzun nahian edozein motata-ko testuak onartzen ari dira literatur testuak bailira. Jakina, testuen pro-dukzioarekin gertatzen den bezala, testu horien kritika ere oso berria da eta haiek bezala, edo haiekin batera, eraiki beharreko kritikagintza. Beraz, literatura bizia eta etengabe aldatzen ari den zerbait den moduan, kritika ere halakoa dugu.

Arestian aipatu bezala, kritikak aztertu eta zabaldu egin behar du produk-zioa; alegia, literaturaren eta honen balizko hartzailearen arteko bitartekaria dugu. Helduen literaturan argi eta garbi dago zein den kritika horren hartzai-lea; baina haur eta gazte literaturan nori zuzendua egiten da? Hona hemen haur eta gazte literaturaren kritikak dituen bereizgarrietako bat: hartzailea. Izan ere, esku artean dugun fikziozko testuetan bi hartzaile daude, irakurlea (haurra) eta testua helarazten diona (heldua). Kritika, beraz, azken honi zuzen-dutakoa izan ohi da.

Hala ere, eta zenbait kasu bakanetan, adin bateko neska-mutilei beraiei zuzenduriko komentarioak eta erreseinak ere aurki ditzakegu (“Maritxu Berri-tsu” irratsaioan egiten zen bezala, edo *Ipurbeltz* aldizkarian jasotzen zirenak, adibide batzuk aipatzearren).

Baina ez da hori haur eta gazte literaturak duen bereizgarri bakarra. Arlo honetako liburuetan hitzaren eta irudiaren arteko osaketa dugu eta, alde ho-rretatik, aipaturiko obrak aztertzerakoan osagai biei egin beharko litzaieke erreferentzia; hots, testuaren eta irudiaren kritika behar dugu; are gehiago haur txikientzako liburuetan, hauetan irudiaren lengoaiak sarritan testuarenak baino gehiago komunikatzen baitu.

Eta azkenik, hirugarren bereizgarri nagusia aipatzeko, haur eta gazteen munduaren ezagutza genuke. Hots, obra hauek hartzaile zehatz bati zuzenduak daude, edo hobe esanda hartzaile zehatz bati ere zuzenduak daude eta haur edo gazte horren eboluzioa, psikologi garapena eta antzekoak kontuan izan behar ditugu delako obra aztertzerakoan. Hizkera, edukia edo kontatzeko era aztertzerakoan, esate baterako, presente izan behar dugu haurraren garapen maila.

Kritika mota ezberdinak

Orain artekoak ikusirik, azter dezagun zein den haur eta gazte literaturaren kritika gure artean. Komunikabideetan eta instituzioetan duen presentzia, hartzailea, kaleratzeko bideak eta kritika mota.

Eta lehendabiziko inpresioa kritika ezarena da. Egia da zerbait egiten dela eta zenbait komunikabidetan plazaratzen direla erreseinak, komentarioak eta kritikak, baina, oro har, lehenengo ustea kritikarik ez egotearena dugu, edo hainbat adituk ez dutela haur eta gazte literatura aintzat hartzen. Jokabide honek ezjakintasunaren ondorioz hainbat urtetan eman den iritzi edo ustean du oinarria. Haur literatura ez dela literatura, alegia. Baina arrazoi hori bezain pisuzkoa izan daiteke ohiko kritikariek fikziozko testu hauen aurrean duten ezagutza falta (eta arestian aipaturiko hiru bereizgarri horiena).

Kritika oso modu ezberdinetan egin ohi da, eta nolabaiteko eskema bat jarraitzekotan (Vazquez Freire idazle eta kritiko gailegoak eginikoa oinarri izanik, 1996: 125-131), honako kritika motak aurki ditzakegu komunikabide ezberdinetan:

- Testu laburrak edo erreseinak
- Testu luzeak: – Deskriptiboak
- Subjektiboak
- Analitikoak

Jakina, hauei unibertsitatetik eginiko kritika gehitu beharko litzaioke, baina gure artean oso bakanak dira honelako lanak.

Erreseinei dagokienez kritika lanak baino kritika aurreko lanak direla esan daiteke, obrari buruzko informazio laburra eta zenbait kasutan balorazio txiki bat. Gerta daiteke argitaletxeak berak eginikoa izatea edo liburua irakurri gabe argitaletxeak igorritako informazioan eta liburuko paratestuetan oinarriturik egotea.

Xingola, E. Egunkariak igandero kaleratzen duen gehigarrian, horrelakoak ikus daitezke. Baina baita *CLIJ* edo *Argia* aldizkarietan, adibidez. Hona hemen azken aldizkari honetako adibide bat:

BAIEROA, ORDENADOREA

Karlos Santisteban idazle bilbotarrak Central Hispanok antolatzen duen aurtengo “Imajina ezazu Euskadi” lehiaketan euskarazko ipuinen arteko bigarren saria irabazi berri du *Begiradaren lilura* lanari esker. Denetarik egin du literatura munduan: kazetaritzan egin zituen hastapenak, olerki bilduma batez osatu zuen bere lehen liburua eta lanbidez itzultzailea izaki, itzulpen mordo du egina. Haur literaturan ere hamaika liburu kalera-tu ditu dagoeneko, azkenekoa “Bai eroa, ordenadorea”, Zubia argitale-txeak plazaratu duen zortzi urtetik gora dituztenei zuzenduriko istorio umoretsua.

Lorea, liburuko protagonista, informatikazale amorratua da eta bere ordenadorean programa bereziak egiten ditu txikitatik. Loreak ordenadorea lagun mina izan du bi urte zituenetik, baina, gauzak aldatzen hasiko dira, tramankulua gaiztotzen hasiko baita, asmo harrigarriak izateraino.

Lorea eta ordenadore bihurriaren arteko harremana aitzakiatzat hartuz, Karlos Santistebanek umorez beteriko pasadizoak eskaintzen dizkie irakurle gaztetxoei eta, bide batez, erabilera okerra eginez gero, horrelako tresnek duten arriskua ere azaltzen die. (*Argia*, 1997ko azaroak 2, 38. or.)

Ikus daitekeen bezala (sinatu gabeko erreseina honetan; hori ere sarri ematen den gertakaria baita, erreseinak izenik gabe azaltzea) ez da liburuaren baloraziorik egiten eta informazio laburra –batez ere egileari buruzko informazioa– eskaintzen zaio irakurleari.

Honelako testuak, beraz, ez lirateke kritika lanak, informazio edo zabal-kunde lanak baizik.

Komentario **deskriptiboak** ditugu erreseinetan eta, zenbait kasutan, erreseinak baino luzeagoak izan ohi dira. Hona hemen Javier Rojok *Gau, gau, gau* liburuaren inguruan eginikoaren pasarte adierazgarria:

...Istorio honetan kontatzen digute nola Iria izeneko hiriak gaua galdu duen, errege gaizto batek lapurtua. Egoera, poliki-poliki, jasanezina egin-go zaie hango biztanle gizajoei. Gauzak horrela, errege horrek zenbait proba pasaraziko dizkie, gaua berreskuratuko badute. Ipuinaren hasierako egoera hau, ikusten denez, pixka bat bitxia da, gehienetan honelako ipuinetan gaua izaten baita gaitzen eta beldurren jatorria. Hemen alderantziz, ordea. Gau-ezak aztoratzen ditu iriatarrak eta balentria handiak egin beharko dituzte berriro gauaren atsegina dastatu ahal izateko. Liburua proba horiek egituratzen dutelarik, batzutan atalka eginda dagoela dirudi, eta, honetan, agian, bi idazlek idatzi izanak eragina izan du. (*El Correo Español*, 1998ko otsailaren 4a).

Honelako testuetan, batez ere, argumentua komentatzen da, kritikarik egin gabe eta obraren inguruko baloraziorik gabe. Komentario hauek, batzuetan, aipaturiko liburuak irakurtzeko gogoak piztu dezakete.

Komentario **subjektiboetan**, berriz, egileak bere sentimenduak adierazten ditu. Gustatu, ez gustatu, bere nahiak ase, ustekabea sentitu,... hots, inolako

analisirik gabe eginiko komentario pertsonala. Hau, jakina, ezin da kritikatzat hartu. Izatekotan norbaiten balorazio pertsonala litzateke, besterik ez.

Eta azkenik komentario **analitiko**a dugu, azterketa baten bidez obrari buruzko balorazio eta iritzi bat ematen da. Eta azterketa hori normalean ideologian, psikologian, soziologian, historian edo forman oinarritzen da, nahiz eta ohikoa izan arlo bat baino gehiago presente izatea obraren komentarioa egiterakoan. Felipe Juaristik *Nire eskua zurean* obrari buruz eginikoa genuke honen adibide bat:

...adierazi behar dut zergatik gustatu zaidan hainbeste. Istorioa bera aipatuko nuke. Mutiko batek bere etxetik ihes egiten du,(...). Kontatzeko modua, bestetik. Mutikoak berak kontatzen du istorioa, lehen pertsonan idatzita dago. Mutikoak aurkezten dizkigu pertsonaiak, berak harilkatzen pasarte guztiak bata bestearekin, berak ateratzen ondorioak. Berea da istorioa,(...) mutikoak darabilen hizkuntza erabat sinesgarria da. Ez dago espainolkeriaren abusurik, ondo orekatuta daude handik eta hemendik hartutako esamolde eta espresioak. Eta bizia da kontaketa, erritmo arina du, esaldi motzez baina indartsuez kateaturik.

Situazioa ere aipatu behar (...).Bukaera irekia da, eta bide bat baino gehiago atera daiteke bertatik. (Felipe Juaristi, *El Diario Vasco*, 1995eko ekainaren 10a).

Adibide honek, gainera, balio digu ikusteko komentario eta kritikak ez direla erabat analitikoak, subjektiboak, deskriptiboak... Felipe Juaristik aipaturiko kritika horretan honela dio lehen esaldian; "Izugarri gustatu zait Maria-sun Landaren liburu hau.", jakina, subjektibotasun hori gero azterketa analitiko baten bidez azaltzen digu. Edo kritikari berak Javi Cilleroren *Eddy Merckxen gurpila* liburuaren komentarioa egiterakoan deskribapena dugu azterketa-ren zati handi bat:

Gogora dezagun giroa: Bilboko auzo bat, ez goi mailakoa, behe mailakoa baizik. Langileak, ia gehienak. Eta kanpotar bat iristen da hara. Esku-langintzan abila oso, mutikoen begiramena eta errespetua berehala lortuko duena. Kanpotar hori bertako neska batez maiteminduko da, eta neskak maitasun hori onartu ez ezik, aurrera eraman nahiko du. Kanpotarra ez den beste batekin ezkonduko da neska, eta kanpotarrak kartzelan amaituko du, segada gaizto bat medio. (Felipe Juaristi, *El Diario Vasco*, 1995eko martxoaren 11a).

Euskarazko kritika

Gaur egun, euskarazko haur eta gazte literaturari buruzko komentario, erreseina, kritika eta abarrak oso modu ezberdinean eskaintzen dira. Hona hemen, horien sailkapen bat:

– *Zerrendak*

Eskoriatzako Haur Liburuaren Mintegiak eginiko zerrendak ditugu honen adibide garbi eta iraunkorrena. Urteko liburu guztien sailkapena onargarriak, onak eta oso onak azpisailetan.

Ez da inolako baloraziorik egiten, bakarrik oso onak edo liburu bereziak diren kasuetan egiten dute liburuaren komentario bat.

– *Erreseina*

Ohikoena eta zabalduena, inolako dudarik gabe. Arestian aipaturiko *Argia*, *CLIJ*, *Xingola*, *El Correo Español*, edo beste zenbait komunikabidetan agertzen dira.

– *Erresina-kritika*

Aurrekoak baino luzeagoak eta alde horretatik obraren azterketa egiten dutenak. Esate baterako, *El Diario Vasco* eta *E. Egunkarian* ematen direnak, baita atera berria den *Behinola* aldizkariakoak. Analisi formalista eta ideologikoak izaten dira, psikologia eta soziologia ere kontuan izaten dutelarik.

– *Kritika akademikoa*

Ezezagunena eta kantitate aldetik ere urriena. Oso medio ezberdinetan eta modu ugari argitaratua. *Tantak*, *Sancho el Sabio*, *Egan*, *Revista de Psicopedagógica*, *Hegats* eta antzeko aldizkarietan, edo liburu ezberdinetan plazaratzen da. Sakabanaturik egoteaz gain, ez dut uste hartzailearengana erraz iristen denik. Alde horretatik sakondu beharko litzateke medio komun bat bilatzen eta aldizkari edo argitalpen hori haur eta gazte literaturarekin erlazionaturik dagoen jendearengana iristen.

Euskal haur eta gazte literaturaz hiru tesi irakurri dira azken urteotan eta beste bat Atxagari buruz; azken tesi honetan gazte literaturako obra ezagun bat aztertu da: *Behi euskaldun baten memoriak*, hain zuzen.

Tesi hauetan, eta hauen inguruan eginiko beste lan batzuetan azterketa historikoak, soziologikoak eta literarioak egin izan dira. Baina lan hauek aurrerari batzuk izan dituzte; literatura inizatikoaren inguruan eginiko *Altxorak eta bidaiak*. *Haur kontabideen azterketak*. (J. Kortazarrek zuzendua eta 1985ean kaleratua), Seve Calleja eta Xabier Monasteriok eginiko haur liburugintzaren azterketa (1988) edo J. K. Igerabideren *Bularretik mintzora* (1993) saio interresgarria, adibide ezagun batzuk aipatzearren.

Azken urteotan irakurritako doktorego tesiak, aldiz, honako hauek izan dira: “Euskal haur eta gazte literaturaren historia”, Etxanizek 1996an irakurria,

eta munduko haur eta gazte literaturan gureak duen lekua eta izan duen eboluzioa aztertzen duena; "Euskal Haurtzaroaren Asmakuntza 1976-1990 urte bitarteko ipuingintzan islatu denez" Eukene Martin San Pedro irakasleak 1997an irakurritakoa eta garai horretako ipuingintzan islatzen den haurraren irudia aztertzen duen lana, eta azkenik "Euskarara itzulitako haur eta gazte literatura: funtzioak, eraginak eta estrategiak" Manu Lopez Gasenik 2000. urteko urtarrilean irakurritako lana. Azken tesi honetan euskarara itzuli den literatura aztertzen da, nork, noiz, nola, nondik... itzuli den eta itzulpen horiek zer nolako eragina izan duten euskaraz sorturiko literaturan.

Aipaturiko hiru tesi hauek gain bada beste bat, arestian aipatua, Atxagaren obrari buruz eta zati batez, behintzat, M.J. Olaziregiren *Bernardo Atxagaren irakurlea* (1998) liburuan ikus dezakeguna. Harreraren Estetikan oinarriturik, Atxagaren *Obabakoak* eta *Behi Euskaldun baten Memoriak* liburuak aztertzen dira bertan, eta gazte literaturan sakontzeko obra aproposa dugu.

Argitalpen hauek gain, hainbat kongresutan (Caceres 1998 edo Vigo 1999 adibidez) euskal haur eta gazte literaturaz eginiko azterketak izan ditugu. Ilustrazioaren eboluzioa, historia, itzulpengintzaren egoera, idazle batzuei buruzko lanak... aurkeztu dira aipatu kongresuetan.

Alde horretatik kritikak, azterketak egiten ari gara eta aurreratzen baina oso poliki. Agian Katalunian egin duten bezala interesgarria litzateke ikertzaile sare bat sortzea. Une honetan bi sailletan ematen ari dira doktorego ikastarok haur eta gazte literaturaz, eta programa batean ikerketa lerro bat ireki da. Baikorrak izateko arrazoiak badaude, baina, jakina, gure neurria eta lana presente izanik beti.

Orokorrean, beraz, esan dezakegu euskarazko kritikagintzaren egoera nahiko ahula dela. Literatur produkzioaren atzetik goaz baina kritika aurreko edo kritika antzeko komentario ugari dauden bitartean oso gutxi dira analitiko-ekinik daudenak eta benetan eztabaidagarriak eta eraikitzaileak. Medioak behar dira kritikan sakontzeko eta eginiko apurra hartzailearengana iristeko.

Baina, eta bukatzeko, azken urteotan egoera izugarri hobetu dela ikusirik, esan dezakegu dena ez dela hain iluna. Kritikatu bai, edo autokritikatu bai, baina hobetzeko, eta horretan ari gara.

BIBLIOGRAFIA

- GONZÁLEZ GIL, M. (1994) "La literatura infantil: Estudio y crítica." *I Congreso Nacional del Libro Infantil y Juvenil. Memoria*, Asociación Española de amigos del Libro Infantil y Juvenil, Madrid.
- HUNT, P. (1992) *Criticism, Theory and Children's Literature*. Oxford: Blackwell.
- HUNT, P. (ed.) (1996) *International Companion Encyclopedia of Children's Literature*, Routledge, London.

PEONZA (1996) "Hacia una meta-crítica: Reflexiones sobre la crítica en literatura infantil". *I Congreso Nacional del Libro Infantil y Juvenil. Comunicaciones*. Asociación Española de amigos del Libro Infantil y Juvenil, Madrid.

PICKERING, S. (1982): "The function of criticism in children's literature". *Children's Literature in Education* 13, 13-18.

VÁZQUEZ FREIRE, M. (1996) "Notas sobre literatura infantil y crítica literaria". *I Congreso Nacional del Libro Infantil y Juvenil. Comunicaciones*, Asociación Española de amigos del Libro Infantil y Juvenil, Madrid.